


Euskal AEko industria-prezioak % 0,6 igo dira 2020ko abenduan aurreko hilaren aldean

2019ko abenduarekin alderatuta, industriako prezioek % 2,0 egin dute behera

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko industria-prezioak % 0,6 igo dira 2020ko abenduan aurreko hilaren aldean. Abenduko urte arteko tasa (azken hamabi hilabeteetan industriako prezioek izandako aldakuntza jasotzen duena) -% 2,0koa izan da.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Azterketa xeheago batek agerian uzten du ezen 2020ko abenduan honako sektore hauek izan dituztela prezioetako hazkunderik handienak aurreko hilaren aldean: *Kokeriak eta petrolioaren finantza* (% 6,4ko igoera), *Erauzketa-industriak* (% 1,8ko igoera) eta *Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa* zein *Ura* (% 1,4ko igoera bietan). Aitzitik, prezioetan sektore hauetan izan dira hilabete arteko beherakadak handienak: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 0,8ko jaitsiera) eta *Elikaduraren, edariaren eta tabakoaren industria* (% 0,5eko murrizketa).

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera sailkapenari jarraituz, prezio-aldakuntzak desberdinak izan dira: *Energiaren* prezioak % 2,7 igo dira, *Bitarteko ondasunenak* % 0,3 hazi dira, eta *Ekipo-ondasunenak* ez da, ordea, aldakuntzarik izan (% 0,0). Aldiz, *Kontsumo-ondasunen* prezioak, oro har, % 0,2 jaitsi dira aurreko hilaren aldean, *Kontsumo-ondasun* ez iraunkorren

azpisektorean % 0,3 jaitsi direlako; *Kontsumo-ondasun iraunkorren* azpisektorean prezioak % 0,2 igo dira.

Euskal AEko Industriako Prezioen Indizea. Aldakuntza-tasak (p). 2020ko Abendua

	INDIZEA	ALDAKUNTZA %	
		2020abe / 2020aza	2020abe / 2019abe
INDIZE OROKORRA	102,0	0,6	-2,0
Sektore-banaketa			
Erauzketa industriak	106,8	1,8	1,1
Manufaktura-industria	103,1	0,8	-1,9
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	106,3	-0,5	2,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	107,6	-0,2	-4,1
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	102,6	-0,2	-2,9
Kokeak eta petrolioaren fintzen	91,0	6,4	-20,5
Industria kimikoa	108,0	1,2	0,0
Botiken fabrikazioa	110,0	0,8	1,3
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	99,1	0,4	0,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	104,0	0,1	1,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	108,1	1,4	5,2
Material eta ekipoen fabrikazioa	104,7	0,0	1,5
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	103,9	0,0	-3,2
Garraiorako materialen fabrikazioa	108,9	0,2	3,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	106,5	0,4	-0,2
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	94,5	-0,8	-2,9
Ura	110,9	1,4	6,2
Industria-sektore handien arabera			
Kontsumo-ondasunak	106,8	-0,2	2,2
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	104,3	0,2	0,9
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	107,2	-0,3	2,4
Ekipo-ondasunak	108,3	0,0	0,8
Bitarteko ondasunak	103,1	0,3	0,7
Energia	92,8	2,7	-12,9

Oinarria 2015=100

(p) Behin-behinekoak

Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Urte arteko terminoetan (2020ko abendua 2019ko abenduaren aldean), prezio-hazkunderik handienak honako adar hauetan gertatu dira: *Ura* (% 6,2ko igoera), *Produktu informatiko, elektroniko eta optikoen fabrikazioa* (% 5,2ko igoera) eta *Garraio-materialaren fabrikazioa* (% 3,2ko igoera). Prezioen jaitsierarik handienak, berriz, honako sektore hauei dagozkie: *Kokeriak eta petrolioaren fintzea* (% 20,5eko beherakada), *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 4,1eko murrizketa) eta *Makineria eta ekipoen fabrikazioa* (% 3,2ko jaitsiera) sektoreei.

Helburu ekonomikoaren arabera ondasun-talde handien prezioek urte arteko aldiaren izan duten aldakuntza positiboa izan da *Kontsumo-ondasunentzat* oro har, % 2,2ko igoera izan baitute; izan ere, *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren* prezioak % 2,4 igo dira, eta *Kontsumo-ondasun*

iraunkorrenak % 0,9. Era berean, urte arteko terminoetan, *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,8 igo dira, eta *Bitarteko ondasunenak* % 0,7. *Energiaren* prezioak, aldiz, % 12,9 jaitsi dira.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62